

Apirilaren 23a, Liburuaren Eguna

23 de abril: Día del Libro

Alaba maitea:

Arrunt kuxkusera zarenez gaur nere gauzak begiratzean ikusi duzu APIRILAREN 23a nire egutegian gorriz azpimarraturik zegoela, eta, noski, den dena jakin behar duzunez galdetu didazu: "Amatxo, zer ospatzen da apirilaren 23an? Hori galdera zaila neska, 6 urte bertzerik ez dituzunez nola azaltzen ahal ditzut LIBURUAREN EGUNA zer den. Haundia bazina irakurtzeak duen garrantziaz hitzeginen nizuke. Irakurketa dela medio zenbait helburu betetzen ahal dira, ahalmen linguistikoa nola hiztegia haunditzen ahal dira. Honetaz hitzeginen nizuke eta baita aipatuko nizuke ere irakurketa hizkuntza eta irudimenaren garapenean lagungarria dela.

Jakinen bazina nola gozaten dudan etxeko liburuak hartzen dituzunean, usaindu, ukitzen dituzunean, nola liburuaren indarrez, kolorez buztitzen zaren... hori dena izugarri gustokoa dut. Eta gure liburuak hartzen dituzunean, nola paseatzen dituzun nola jartzen zaren kulunkalkian eta nola, aitaren ixtak eginez, leitzen hasten zaren.

Erranen nizuke liburuetara hurbiltzeak gustoko zerbait izan behar duela, gozatuz egin beharreko gauza, alegia.

Ipuinak aditzea, zuk gauero egiten duzun bezala, zer garrantzitsua den aipatuko nizuke. Ipuinen bitartez zenbait hitz arraro ezagutu dituzu, eta iadanik ez dira arraroak zuretzako, ezagutzen eta erabiltzen dakizu eta.

Zer gehiago aipatuko nizuke, badakit, erranen nizuke familian hasita eta hortik abiatuta irakurketa elkar lanean egin beharreko lana dela, abentura denez, liburuetara hurbildu behar dugu modu natural batez, inongo presiorik gabe.

Querida hija:

Tú que eres tan observadora y me curiosas todas mis cosas has visto el día 23 de abril señalado en rojo en mi calendario particular y me has preguntado: «Amatxo, ¿qué es el 23 de abril? Y claro, como sólo tienes 6 años, cómo te explico yo qué es el DÍA DEL LIBRO. Si fueras un adulto te explicaría lo importante que es leer. Te podría hablar tanto de qué logros se consiguen por medio de la lectura, de cómo aumenta la capacidad lingüística, de vocabulario, de cómo ayuda a desarrollar la lengua, la imaginación... Te podría decir cuánto disfruto cuando coges los libros de casa, cómo los hueles, cómo los tocas, cómo sientes su fuerza, sus colores. Cómo me gusta cuando coges nuestros libros, cuando los paseas por la casa y cuando te sientas en la mecedora y te pones a ojearlo imitando a papá. Te podría hablar de cómo la invitación a acercarse a los libros es un placer, algo que se hace inconscientemente, disfrutando... Todo esto, Irati, te podría contar. También te podría hablar de lo importante que es oír cuentos, como tú haces todas las noches antes de dormirte. También te hablaría de cómo a través de los cuentos te puedes enfrentar a palabrotas difíciles y cómo ya las entiendes todas, o casi todas. También te diría que desde la familia hay que compartir es aventura de leer y cómo ese encuentro debe ser atractivo, sin presiones. Es un juego y a quién no le gusta jugar.

Todo esto te podría contar querida hija pero sé que no me entenderías, yo sé que todo esto no lo entiendes y que sólo crees en nuestras historias, ya me dirás.

Azken finean, irakurtzea jokua bertzerik ez da, eta nori ez zaio gustatzen jostatzen aritzea.

*Hau den dena erranen nizuke baina bada-
kit ez zenukeela ulertuko, nire istoriaz bertze-
rik sinesten ez duzulako, horregatik bat konta-
tuko dizut, eta gero zer iruditu zaizun erranen
didazu.*

*"Bazen behin hurbileko lurralde bat, han
gizakiak presaka bizi ziren, gauza guztiendako
tresna eta makinak bazituzten: janari presta-
tzeko, arropa garbitzeko... baita haurrak pa-
seatzeko ere. Bai eroso zela. Makinek haurrak
eskolara eramateaz gain, bere bila joaten zi-
ren, bokadilloa eman, etxera eraman, lotan pa-
ratu... hori dena egiten zuten. Gurasoek ez zu-
ten deustan kezkatu beharrik, denborarik ez
zuten eta. Lotarakoan musu bat ematen zieten
eta kitto, biharamun artio. Horrela haurrak ere
makinen menpe bizi ziren: telebista,
bideojokuak, lo egiteko makinak, es-
kolara joateko makinak..."*

14

*Horrela bizi ziren lurralde hartan,
eta horregatik, ipuinetako pertsonaiak: Pino-
txo, Simbad Marinela, Aladino... eta bertze
honen bertze pixkanaka pixkanaka atzenduak
ziren. Egun batean denak elkartzea eta FAN-
TASIASKO ERREGINAREN GANA joatea era-
baki zuten. Triste eta kejaka joan ziren. Bota-
dun Katua boreramailea egin zuen.*

–Maiestatea, zure laguntza behar dugu.

*–Bai, badakit zer duzuen, baina solastu,
solastu.*

*–Arrunt triste gaude haurrek ezagutzen ez
gaituztelako. Guresoek, irakasleek, atautxiek...
haurrei ez diete ipuinik kontatzen, atzendu
egin zaizkie. Denak makinak dira, tresna ho-
rien menpe bizi dira, irri egiten ez dakite, be-
ti presaka dabiltza, ez dute libururik leitzen,
ez dute marrazkirik egiten, ez dira, jostetan
aritzen, ez...*

*«Hace ya tiempo, en un país cercano, los
hombres vivían con muchas prisas, tenían
máquinas para todo, para hacer la comida,
lavar la ropa... hasta para pasear a los niños.
Qué comodidad. Las máquinas llevaban los
niños a la escuela, los recogían, les daban el
bocadillo, los llevaban a casa, los acosta-
ban... Los padres no tenían que preocuparse
de nada, no tenían tiempo para nada. Al
acostarse les daban un beso y hasta el día
siguiente. De esta forma los niños también
vivían colgados de máquinas: televisión,
videojuegos, máquinas para dormir, para ir al
colegio...*

*Así vivían en aquel país y poco a poco
los personajes de los cuentos: Pinotxo, Sim-
bad el Marino, Cenicienta, Aladino... y tantos
otros se iban quedando en el olvido. Un día
decidieron juntarse todos y visitar a la REINA
DE LA FANTASÍA. Fueron tristes y quejosos.
El Gato con Botas hizo de portavoz.*

–Majestad, necesitamos ayuda.

*–Ya sé lo que os ocurre, pero habla,
habla.*

*–Estamos muy tristes, Majestad, porque
los niños ya no nos conocen. Los padres,
profesores, abuelitos... ya no cuentan cuentos
a los niños, se les han olvidado. Todo son
máquinas, viven colgados de unos trastos, no
saben reír, siempre tienen prisa, ya no leen
libros, ya no dibujan, ya no juegan, ya no...*

*–Basta, basta, no quiero escuchar más
porque me pongo muy triste. Lo tenemos
muy difícil, cómo vamos a competir con
tanta máquina, cómo vamos a convencer a
los abuelos, padres, profesores que tienen
que volver a leer y contar cuentos a los
niños.*

*–Si esto sigue así, Majestad, nos morire-
mos, dijo Cenicienta.*

*–Tranquilos, tengo que hacer algo, pasad,
hoy os quedaréis en el palacio y mañana ya
veremos qué hacemos.*

–Aski da, aski da, ez dut gehiagorik aditu nahi triste jarriko naiz eta. Nahiko zaila dugu, honen bertze makinei nola egin egin behar diegu kontra, nola ohartarazi behar ditugu gurasuak, irakasleak eta atautxiak liburuak leitu behar dituztela eta haurrei ipuinak kontatu egin behar dizkietela.

–Horrela segituz gero, Maiestatea, gureak egin gu. Edurnezurik erran zuen.

–Beno, lasai, zerbait egin behar dugu, sartu, sartu, gaur nere jauregian lo eginen duzue eta bihar ikusiko dugu.

Gau hartan, denak lo zirelarik FANTASIASKO ERREGINARI ideia magiko bat bururatu zitzaion, ipuinetako ideia, bai noski. Gau hura lurralde hartan berezia izanen zen, guraso, irakasle eta atautxi guztiek Pinotxo, Simbad, Hansel eta Gretel, Edurnezuri eta bertze hainbat pertsonajekin ametsak egin zituzten. Gau osoa istoriak bizitzen eta ipuinekin gozatzaren pasatu zuten. Biharamunean guraso, irakasle eta atautxiak ez zuten presarik, haurrei gosaria eman zieten, eskolara eraman zituzten etan han, eskolan, ipuinak aditu zituzten, lotarakoan baita ere... Zoragarria zen, etxeak berriro liburuaz bete ziren. Haurrak liburutegetara leitzera, margotzera... joaten ziren”.

Irati, orain badakizu zer garratzitsua den LIBURUAREN EGUNA. Libururik ez bagenu lurralde hartan bezala biziko ginateteke, baina zaude lasai, ez kezkatu, zuk beti ipuinak adituko dituzu, liburuak leituko dituzu eta espero dut, egunen batetan zure alabari APIRILAREN 23a EGUNETN ZERGATIK DAGOEN GORRIZ azaltzerik izanen duzula.

Aquella noche, mientras todos dormían a la REINA DE LA FANTASÍA se le ocurrió algo mágico, de cuento, cómo no. Esa noche iba a ser especial en aquel país, todos los profesores, padres, abuelitos soñaron con Pinocho, Simbad, Hansel y Gretel, Cenicienta... toda la noche la pasaron recreando y reviviendo las historias... A la mañana siguiente los padres, profesores, abuelos ya no tenían prisa, ellos dieron de desayunar a los niños, los llevaron al colegio y allí escucharon cuentos; al acostarse les leyeron cuentos... era maravilloso, las casas se volvieron a llenar de libros. Los niños iban a las bibliotecas a leer libros, a pintar, a...».

Ahora, Irati, ya sabes por qué es tan importante que celebremos el DÍA DEL LIBRO. Si no tuviéramos libros probablemente viviríamos como en ese país, pero tú no te preocupes, tú seguirás escuchando y leyendo libros y espero que el día de mañana puedas explicar a tu hija por qué EL 23 DE ABRIL ESTÁ ROJO EN EL CALENDARIO.

15

Marga ERDOZAIN
Doneztebeko - Liburuzaina